

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Sabina Castaňares Iturbe

*Legutio, Araba
(1916)*

Aurkibidea



Biografia



Legutioko Ollerieta auzoko Bentazar baserrian jaioa. Aita Ollerietakoa bertakoa zuen, baina aitita (aitaren aita) Lumotik etorritakoa zen. Sabinaren ama, berriz, Arratiako Areatza herrikoa zen. Senarra ere Ollerieta auzokoa zuen Sabinak, Pepe Ortiz de Zarate. Sabinaren aita eta baita senarra ere buztinlariak ("alfareroak") ziren.

Zintak

LEG-028

- **Proiektua:** Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Data:** 2000-04-02
- **Iraupena:** 83 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** García Uriarte, Imanol

LEG-047

- **Proiektua:** Arabako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Carrera Garmendia, Ignacio - García Uriarte, Imanol
- **Data:** 2002-03-02
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** García Uriarte, Imanol

Pasarteak

1. Ollerietako Bentazar baserrian jaioa

- **Erref:** LEG-047/002
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:00:14. **Bukatu:** 00:01:25

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Sabina Ollerietara auzoko Bentazar etxean jaioa da. Etxe ondotik galtzada zahar bat pasatzen da, Urrunagatik zehar Urbinara zihoana. Gero urpean geratu zen dena urtegia egitean.

2. Ollerietara Elosuko auzunea; mugak

- **Erref:** LEG-047/005
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:03:56. **Bukatu:** 00:05:38

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

"Ollerietara" esan izan diote beti auzoari. Elosuko auzoa da. Legutioko muga non dagoen; ze baserri diren Elosukoak eta zeintzuk Legutiokoak. Akosta, Etxaguen, San Pedro, Zestaf... Zigoitikoak dira. Gazte-denboran inguruko herritxo horietara joaten ziren jaietan.

3. Bertako euskara galdu egin da

- **Erref:** LEG-047/006
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:05:38. **Bukatu:** 00:06:36

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Bera gaztea zela ere Zigoitian ez zen euskararik egiten. Elosun bai. Baina galdu egin da bertako euskara. San Pedron (Zestaf) bazen "Arrati" ezizeneko gizon euskaldun bat.

4. Aitak beti euskaraz hitz egiten zien

- **Erref:** LEG-047/009
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:07:58. **Bukatu:** 00:09:17

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolan gaztelan egiten zuten, irakasleak erdaldunak ziren eta. Beraiek ere erdaraz errazago egiten da zuten. Amak ere gaztelan egiten zuen arratiarra izan arren. Aitak, berriz, beti-beti euskaraz hitz egiten zien. Aitak goizetan berari deitzen da zion beti, gazteena izan arren, jaikitzen azkarrena zelako.

5. "Suetia" eta "okelue"

- **Erref:** LEG-047/010
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:09:17. **Bukatu:** 00:10:53

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Sukaldean beheko sua zuten. Nolakoa zen. Sukaldeari "suetia" esaten zioten. "Eskatzia" berba ezaguna egiten zaio, baina ez du gogoratzen zeri esaten zitzaion. "Okelue".

6. Ollerietako neskekin gaztelaniaz eta mutilekin euskaraz

- **Erref:** LEG-047/011
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:10:53. **Bukatu:** 00:13:02

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gazte denboran Ollerietako neskekin gaztelaniaz egiten zuen, eta mutilekin, berriz, beti euskaraz. Elosun Ollerietan baino gehiago egiten zen euskaraz. Legution, berriz, kaletarrak bizi ziren eta gaztelania zen nagusi.

7. Abereei euskaraz egiten zitzaien

- **Erref:** LEG-047/012
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:13:02. **Bukatu:** 00:13:58

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Abereei euskaraz hitz egiten zieten. Uztarriko ganaduari "aida" esaten zitzaion aurrera joateko eta "arre", berriz, astoei eta zaldiei. gelditzeko, berriz, ganaduari "o" eta zaldi edo astoei "so".

8. Faxisten sarraskia Otxandion, Santa Marina jaietan

- **Erref:** LEG-047/016
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:18:52. **Bukatu:** 00:21:00

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Otxandion Santa Marina jaiak ospatzen dituzte uztailaren 18an. 1936an faxista bat etorri ei zen Gasteiztik eta "¡Viva Cristo Rey!" oihukatu zuelako kartzelatu egin ei zuten. Handik egun gutxira, artean herriko festak ospatzen ari zirela, faxisten abioiek herria bonbardatu zuten. Plaza jendez beterik zegoen eta hildako asko egon ziren. Beraiek sorotik ikusi zuten bonbardaketa.

9. Etxe guztiek izaten zuten "larraina"

- **Erref:** LEG-047/019
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:22:18. **Bukatu:** 00:22:55

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

"Larraina" etxe guztiek izaten zuten etxe aurrean. Bertan garia, oloa edo bestelako laboreren bat "larrendu" ("trillar") egiten zen, behorren laguntzaz.

10. Lizarrez egindako "mokil-porrak", mokilak jotzeko

- **Erref:** LEG-047/023
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:27:36

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Lizarra "mokil-porrak" egiteko erabiltzen zen, egur gogorra zelako. Nolakoa izaten zen. Mokilak lehenengo ganaduarekin apurtzen ziren. Baina artoa ereiteko lurra mokilik gabe behar zen, eta geratzen zirenak "mokil-porrarekin" jotzen ziren.

11. Artaldeak udan Gorbeian; neguan Basauri ingurura

- **Erref:** LEG-047/024
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:27:36. **Bukatu:** 00:29:32

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Zigoitia eta Legutio aldeko artzainek Gorbeia aldera eramaten zituzten ardiak eta baita Orozko aldekoek ere. Udan hango txaboletan egoten ziren. Neguan artalde handiak Arratia aldera edo Bidebieta (Basauri) ingurura eramaten zituzten, eta pare bat hilabete egiten zituzten bertan.

12. 17 urterekin, lagunekin Gorbeiara

- **Erref:** LEG-047/026
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:30:46. **Bukatu:** 00:32:05

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

<p>17 urte zituela, neska-mutil kuadrilla bat Gorbeiara joan ziren, eta bertako gurutzean argazkiak ere atera omen zituzten. Nondik joan ziren azaltzen du.</p>

13. "Olabia", etxe ondoko estalpea

- **Erref:** LEG-047/033
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:47:36. **Bukatu:** 00:48:02

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Etxe ondoan egurrak gordetzeko edukitzen zen estalpeari "olabia" esaten zioten.

14. Inguruko erromerietara; Urrunagatik etxeranzkoan gertatutakoa

- **Erref:** LEG-047/036
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:49:50. **Bukatu:** 00:52:05

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Inguruko jaietara joaten ziren, abarketa zuriak jantzita: Urrunagara, Urbinara, Gopegira, San Pedrora... Lehen, herriko jaietan soinujolea egoten zen eta denak dantzara joaten ziren. Bideak zuloz beteta egoten ei ziren, gurdiak ibiltzen zirelako. Behin ilundu eta gero Urrunagatik zetoze bidean pasatako komeriak.</p>

Transkripzioa

- Eta jaixetan-ta, Urrunagara joaten zineten?
- Bai! "No faltaba más! con alpargatas blancas y, hola, chulas"!... jueten gintzen. Ta lelengo erromeridxak ixeten zien holan, herridxetan, kordeonista bat. Ta "a todos a bailar al acordeón"! Ta akordeten naz, igual atzenengo urtie izengo zan, igual, gerra aurrian... [ixiten geran] gu, ni ta beste neska bat, bata zer baten, " en un caserío, y la otra en el otro caserío, diez minutos o más de camino había, pero bueno, ¡siempre juntas!... ¡juntas!" beti, beti!
- Hemengoa...?
- Bai, bai, bai. Ta joaten gintzen, ba, Urrunagara-ta fiestetara. Urbiñara be bai igual! Bai! Ta Nafarratera ta Gopegire ta San Pedrora ta holako fiestak eukiten gebazen.
- Eta Lukura?
- Ez, Lukure ez! Ta gero, zereti, Urrunagati, fiestan, eta etorri gintzezen, ba, hamaiketan edo, hamarretan edo, nik ez dakit ze ordu izengo zan! Ta Sarraua izetan zan hor, hor llanue dau oin dana, ure dau oin, baia len egoan arbolau bet eguan, "Sarraua" esaten jakon, ta arbolea asko. Ta burdidxak ibiltzen ziren ididxekin ta holan, ta bidie ba txarto! leku batzuetan poziek eta beste batzuetan ondo, ta holan! Ta gu, bueno, ba, etzerantza, gaure apargeta zuridxokin, garbi-garbi. Eta sartzen gintzen pozueta, "ay Dios"! apergetia bertan itxi! ezin topau! bueno! komedidxak! Ta holantxe. Gero kontetan holako gauzak eta!

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com